



Artikutzako ttanttak



Artikutza
Natura

8

Zenbakia
2014ko Udazkena-negua

Telefonoa: 690 720 264
(Astleheneretik ostiralera, 10:00 - 16: 00)
www.donostia-artikutza.org
artikutzanatura@donostia.org



Azaleko argazkia: Jesus Rubio
Kontrazaleko argazkia: Margi Iturriza

adurkibideak

ELKARRIZKETA
Pili Apezetxea eta Axier Jaka.....4

HARITIK TIRA
Artikutzako errekak presarik gabe!.....10

ARTIKUTZA IRUDITAN
Goizaringo zubia.....12 -13

BILDUMARAKO
Eguzki-ihintza (*Drosera sp.*).....14

BARRU BARRUTIK
Errekak, ur geruzatik haratago.....15

ARGAZKI GALERIA



e lkarrizketa

Oraingo honetan Artikutzaren oraina eta etorkizuna lantzen diharduten bi udaletako ordezkariak elkartu ditugu, Artikutzari buruz duten ikuspegia ezagutzeko asmoz.

Pili Apezetxea Goizuetako turismo zinegotzia dugu eta **Axier Jaka** Donostiako Udaleko Informazioko, Partaidetzako eta Ingurumeneko zinegotzia da.

1. Artikutza Donostiako jabegoa izanik, Goizuetako lurretan kokatua dago. Zer suposatzen du Goizuetako / Donostiako udalarentzat? Eta Goizuetarrentzat / Donostiarrentzat orokorrean?

Pili: Goizuetako Udalarentzat onuragarria da Donostiako Udala Artikutzaren jabea izatea izan ere, kontutan hartu behar baita erosi zuenean zein egoeratan zegoen, meategiak eta burdinolak zirela eta, basoak kalte handiak jasan zituen eta gaur egun ikus dezakeguna ia ehun urteko lanaren ondorioa dela ezin ahaztu, kalitate oneko ura lortzeko apustu handi bat egin zuten, horri esker Artikutza altxor eder bat bihurtu zaigu, edonoren gozamenerako. Momentu honetan Donostiako Udala eta Goizuetakoa elkar lanean ari gara bi ibilbide prestatzen, Goizarin-Elama burdinolekako ibilbidea eta Goizueta-Artikutza/ Artikutza-Goizueta, natur turismorako oso egokiak, Artikutza, natura maite dugunentzako oso leku berezia da, paregabea esango nuke nik, eta Goizuetarrak ere horrela ikusten dute, askorentzat Artikutzan paseatzea indar berritza da.



Egilea: Margi Iturriza

Axier: Artikutza, Goizuetako udalerriko auzoa da eta, era berean, Donostiako Udalaren jabetza "pribatua". Hortaz, Donostiarentzat, Goizuetako Udala da bertako autoritate publikoa. Jabe pribatu izateak, ardura-plusa suposatzen digu, izan ere, adibide eman beharra baitauekagu, bai Goizuetako Udalarekiko eta bertako arauen errespetuan, baita ingurumen eta kontserbazio ikuspuntutik jorratzen dugun kudeaketa-ereduan. Zentzu honetan, gure helburua da ahalik eta harreman hoberekin edukitzea Goizuetarekin eta Goizuetarrek, eta elkarlaneko harremanak eraikitzea.

Donostiarrei dagokienean, askok ondo ulertzen ez duten bitxikeria da, zenbaitek pentsatzen baitute Donostiak badituela lur publikoak edo herri-lurrak Nafarroan, zehazki, horrela ez denean. Afera administratibo honetaz gain, noski, Donostiar gehienontzat Artikutza urruneko altxor natural bat da.



Egilea: Margi Iturriza

2. Donostiarren/Goizuetarren artean ba al da Artikutzarekiko sentipen berezirik?

Pili: Herritarrek maite dute Artikutza, azken finean gure herriaren auzo bat da, betidanik modu bateko edo besteko lotura izan dugu, mendeetan ekonomia aldetik bertako motorretako bat izan zen; burdinolak, meategiak, ikatz-egileak, abeltzaintza eta baita ere kontrabando kontuak... eta nola ez jaiak, adibidez abuztuak 28an herria ia hustu egiten da, San Agustin eguna Artikutzan ospatu behar da, egun pasa familian edo lagunekin eginez, auzoa bisitatuz lagun zaharrak ikusiz... herritar askok diote herriko festaren azken eguna abuztuaren 28a dela.



Egilea: Inaki Uranga

Axier: Nik uste baietz. Donostiarren txoko urrun bezala sentitzen da, eguneroko hiri-bizitzatik ihes egin eta naturarekiko lotura sentitzeko, bertako basoetan murgilduz. Gainera, sentipen hori zabaltzen doalako ustea dut, Udaletik ere, sakontzen baikoaz Artikutzako altxor naturalen dibulgazioan.

3. Zure ustez zein balio nagusi ditu Artikutzak? Eta zer egin beharko litzateke horiek zaintzeko, babesteko edo berreskuratzeke?

Pili: Biodibertsitatea dudarik gabe, bertako landaredia eta animalia txikiak, Pirinioetako muturluzea esate baterako, galtzeko zorian dagoen espeziea dugu, hau babestu eta galdu ez dadin esfortzu berezia egiten ari da Donostiako Udala, naturan errespetuz jokatzeko derrigorrezkoa da guk jaso dugun ondare eder hau gure seme-alabek ere ezagutu dezaten.

Axier: Balio nagusiak ura eta basoak dira. Elkarri lotutako balioak: Artikutzako baso zabalek ura erakartzen dute eta, halaber, prezipitazioek bertako basoak elikatzen dituzte. Jakina da, Artikutza dela Iberiar penintsulan prezipitazio maila handienetakoak jasaten dituen eremua. Modu apalean bada ere, bertako basoek, tokian tokiko, Negutegi Efektua apaltzen laguntzen dute, eta, hori, iraunkortasunaren ikuspuntutik garrantzitsua da.

Bestalde, Artikutzako sistema hidrikoa eta hari lotutako ekosistema, oso aberatsa eta baliotsua da. Artikutza erreka eta Urdallue, Erroiari, Enobietan eta Elama erreka eta ur-bazterrek bizileku dira espezie askorentzat. Tartean ur-satorra, 2011ean egin zen ikerketa batean aurkitu ez zena, baina aurten bertan bai. Berri pozgarria, nahiz eta espezie honen presentzia kolokan egon.

Zer egin dezakegun babesteko eta berreskuratzeke? Askok eta ezberdinen artean. Basoak mantendu, zaindu eta, ahal den heinean, espezie aloktonoak autoktonoengatik ordezkatu. Eragin antropikoak, egun bezala, maila baxuan mantendu. Artikutzako sistema hidrikoaren konektibitatea, hobetu, habitaten eta zenbait espeziaren isolamendua ekiditeko estrategiak garatu, eta neurriak planifikatu.

Eta batez ere, bisitatzen duten herritarrek errespetuz joko dezatela Artikutzako ingurunearekin, eta ingurumen-kontzientziak zabaldu eta indartzeko iturri izan dadila.



Egilea: Jorge González

4. Aukeratu beharko bazenu, Artikutzako zein txoko edo eremu duzu gogokoen? Zergatik?

Pili: Bat aukeratzea ez da erraza, basoan zehar ibiltzea gustuko dut, erreka bazterrek, burdinolak... Hala ere, auzoa bera esango nuke, oso leku baketsua, polita, ipuin batetik ateratakoa iruditzen zait, xarma berezia dauka.

Axier: Loitzate mendia, Artikutzaren hegoaldeko mendialdean. Batetik, mendizale naizenez, toki garaiak gustatzen zaizkidalako. Bestetik, nahiko leku basatia delako eta jende gutxi ibiltzen dena. Eta hirugarrenik eta bereziki, Artikutza osoa, bere zabalera, baso eta ibarrak eta munduan kokatuta, mugatzen dituen herrixka eta inguruneak ikusteko talaia paregabea delako.



Egilea: Margi Iturriza



Egilea: Margi Iturriza

5. Artikutzak, historian zehar aldaketa nabarmenak izan ditu alor ezberdinetan, zein da zuen ustez Artikutzaren etorkizuna?

Pili: Egia da historian zehar aldaketa asko izan dituela eta gehienek mesederik ez zioten egin, gaur egun erreferente bat izanik etorkizunera begira ere honela jarraituko delakoan nago, Natura 2000 sarean egoteak ere lagunduko dio.

Axier: Artikutzaren etorkizuna, nire ustez, kontserbazioa eta habitaten berreskuratzea, eta ingurumenarekiko hezkuntza eta sentsibilizazioa dira. Zehazki, etorkizunean, etsenplu izan daitekeela Euskal Herriko gainontzeko parke natural edo-eta naturguneentzako, kontserbazio, lehengoratzeko eta sentsibilizazio politikei dagokionean. Itsasargia, erakusten duena, borondate politikoa eta herritarra badago, konpromiso ekonomikoa ere noski, posible dela naturguneak pertsonen gozamenarako eta gainontzeko bizidunen bizileku gisa zainduko duen kudeaketa eredu bultzatzea.



Egilea: Margi Iturriza

6. Artikutza, entzuna bezain ezezaguna leloa behin baino gehiagotan entzun dugu, egia al da?

Pili: Baliteke horrela izatea, baina gero eta gutxiago, edozeini gomendatzen diogu Artikutza bisitatzeko eta behin etortzen dena, berriz bueltatzen da.

Axier: Nire ustez bai. Lehen aipatu dudan moduan, Artikutza, leku eta izen bezala, ezaguna da. Baina, baditu hamaika txoko, ibilbide, mendialde, ibar, baso eta erreka ezagunak ez direnak, eta bisitatuak ez direnak. Zer esanik ez, bioaniztasun ikuspegitik dituen altxorak. Horregatik ahalegintzen ari gara dibulgazio eta hezkuntza eremuan, oinarri informatibo berriak sortzen edota bisita eskaintza zabaldu eta hobetzen. Artikutzako Ttanttak aldizkaria bera, horren erakusle ona da.





Artikutza erreka. Egilea: Margi Iturriza

ARTIKUTZAKO ERREKAK PRESARIK GABE!

Artikutzara azkena joan zinenetik denbora pasa bada, hara gerturatzen zaren hurrengoan ezberdintasunak antzemango dituzu erreka eta errekaetan batez ere. Izan ere, buletin honetako aurreko alean aipatu genuen bezala, Artikutzako sistema hidrikoari buruz UPV/EHUko biologoek eta kolaboratzaileek aurrera eramandako ikerketan, aparteko toki honen biodibertsitatea hobetzeko hainbat ekintza proposatu baitzituzten.

XX. mende hasieran eraikitako presa txikiek funtzio argia zuten: errekan barrerak sortzea eta horrela, ur maila igo eta ura kanalen bitartez Donostiako hornikuntza sistemara bideratzea.



Elama ibaian, Sasiandiko presa eraikitzen 1903 urte inguruan. Iturria: Udal artxiboa



Sasiandiko presa eraitsi aurretik 2014 ko iraila. Egilea: Inaki Uranga

Edo Artikutza auzoko etxeak argiztatu eta zerrategia martxan jartzeko beharrezko energia elektrikoa sortzeko zentral txikia martxan jartzea.



Zentraleko energia sorgailua. Egilea: Margi Iturriza

Gaur egun eraikuntza hauek zaharkituta geratu dira eta ez dute funtziorik betetzen: Donostiako ur hornikuntza 1975 urtea ezker, Añarbeko presatik egiten da. 1922an martxan jarri zen zentrala, aldiz, ez dago funtzionamenduan 80. hamarkadatik.



Urdallueko presa txikiaren erasketa. Egilea: Inaki Uranga

Faunarentzat zeharkaezinak diren horma hauek eraistek, ibai tarte ezberdinen arteko lotura berrezartzea ahalbidetuko du, orokorrean erreka ekosistema hobetuz. Arrain populazioek eta batez ere, muturluze piriniarrak, desagertzeko arriskuan dagoen ugaztun enblematiko txikiak jasandako isolamenduarekin bukatzea da helburua.

Horrez gain, presak botatzearekin ur-zozoa bezalako hegaztien egoera ere hobetzea espero da baita Artikutzako ur azkarretan murgiltzen ikusteko aukera areagotzea ere.



Egilea: Jorge González

Egilea: Agustin Povedano





Bilduma fitxa

EGUZKI-IHINTZA, *Drosera* sp.

Antartidan izan ezik gainerako kontinenteetan presentzia duen 194 espeziez osatutako genero honek, Europan soilik 3 espezie dituen arren badu Artikutzan ordezkaririk bat: *Drosera rotundifolia*.

Landare haragijale txiki hau behatu nahi baduzu, go-ordio ugaridun (batez ere *Sphagnum* generokoak) eremu istildu eta ondo argizatuei erreparatu beharko diezu. Eremu hauek normalean zohikaztegiak izan ohi dira baina Artikutzako kasuan ez da zohikaztegi sortzera iristen beraz, istinga deritze.



Iturria: Creative Commons

Landareak, bere iletxoetan agertzen dituen tanta gardenei zor die bere izen arrunta, baina ez zaitzala engainatu! Tanta horiek iletxoek jariatzen dituzten muzilagoa dira eta ez goizeko lehen ihintza. Bestalde, izen zientifikoak ere ihintzari egiten dio erreferentzia, izan ere, *droseros* hitz grekoak esanahi hori baitu.



Iturria: Creative Commons



Drosera longifolia



Drosera intermedia



Banakeita mapa

Aurreko alean aurkeztu genuen *Pinguicularen* kasuan bezalaxe, elikagaietan pobreak diren lurzoru azidoetan bizitzeak, lurretik lortu ezin duen nitrogenoa intsektuen bidez lortzeko mekanismoa garatzen bultzatu du. Muzilagoak intsektuak bildu eta arnasa hartzeko erabiltzen dituzten espirakuluak buxatuz ito egiten ditu. Ondoren zenbait entzima jariatzen ditu, gorpuak disolbatu eta nitratoak eta bestelako elikagaiak erauzteko.

Zenbait drosera espezieetan, *Drosera capensis*-ean esaterako, prozesu hau oso deigarria da. Lotura honetan klikatuz minutu bat inguru besterik irauten badu ere, orduak edo egunak iraun ditzake: <https://www.youtube.com/watch?v=cZ7Fws1HaL0>

Artikutzan dugun *Drosera rotundifolia*-ren egoera kezagarria ez den arren, generoaren barruan badira EAEko landare baskularren zerrenda gorrian agertzen diren zenbait espezie: *Drosera longifolia* (kaltebera) eta *Drosera intermedia* (bakana).



Arro barrutik

ERREKAK: UR GERUZATIK HARATAGO

Gure inguruan erreka natural edo gizatiartu gabeak aurkitzea geroz eta zailagoa den arren, zorionez, oraindik badugu benetako erreka ekosistemak gordetzen dituen lekurik, Artikutza kasu.

Erreken kanalizazioek bertako landaretza eta fauna murrizteaz gain, hiri edo herri eremuetan ekosistema honekiko dagoen jakituria ere nolabait murriztu duela esan liteke, izan ere, gure egunerokotasunean behatzen ditugun erreka gehienek ez baitute erribera basorik ez eta baso hauekin harreman estua duen faunarik ere.

Baliteke baso hauek betetzen duten funtzioaz jabetuko bagina, egoera bestelakoa izatea.


Ibaiertzeko basoek besteak beste...

- Erreka bazterretako lurzorua egonkortu eta uraren eraginez sortutako higaduraren eragina murrizten dute.
- Materialen sedimentazioa erraztu eta istildutako lurzoruen emankortasuna areagotzen dute.
- Ibaia itzaletan mantentzen dute eta urak fresko irauten du.
- Animalia espezie ugari ezkutatu, umatu eta elikatzeko eremu egokiak sortzen dituzte.
- Ur freatikokoak edo lurpeko urak arazten dituzte.

Benetako erreka batera gerturatzean, begiak ondo ireki eta besteak beste, honakoak ezagutzeko aukera izango duzu:

• **Haltzadia** edo galeria-basoa. Haltzaren sustraiek bustita egotea beharrezkoa dute, sustrai indartsuenek lurrera eusten laguntzen diote eta uraldi aurre egiteko gaitasuna ematen diote. Azaleko sustraitxoei erreparatzen badiezu ordea, nodulu edo koxkor txiki batzuk ikusiko dituzu, bertan aireko nitrogenoa jasotzen duten bakterioak bizi dira. Bakterioek jasotako nitrogenoaren bidez zuhaitzari beharrezko duen elikagaia eskaintzen diote eta honek trukean hostoetan ekoizten duen azukrea eskaintzen die bakterioei.

• **Ur zozoa:** Hegazti hau erreka erdiko harriren baten gainean edo uretzean ikusiko duzu, uretan murgildu eta intsektu, molusku edo arraintxoren bat harrapatzeko prest. Ur azpian korrontearen aurka ibili eta bertan 10-20 segundoz murgilduta egoteko gaitasuna du. Ondo oxigenatutako eta kutsadurarik gabeko erreketako bioindikatzaileria da.



Egilea: Margi Ituriza



Iturria: Wikipedia

Egilea: Agustin Povedano



argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bixi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.org. Argazkiarekin batera zure izen - abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.



802050005064
Izenburua: Amilotx urdina
Tokia: Artikutzako basoan
Egilea: Jesus Rubio



802050005065
Izenburua: Aterkia
Tokia: Erroiari ingurutik
Egilea: Margi Iturriza



802050005066
Izenburua: Ezkutaketan
Tokia: Artikutza
Egilea: Jesus Rubio



802050005065
Izenburua: Arrabioa
Tokia: Erroiarriko kanala
Egilea: Iñaki Uranga

Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.org helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

